PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua: 07 - OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA
Atala: 0710 - Ogasun Zuzendaritza Nagusia
Programa: 110 - Herritarren Arreta eta Zerga Heziketa
Funtzionala: 925 - Herritarren arreta

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Gipuzkoarren kontzientzia fiskala areagotzea, heziketaren bidez eta zerga sistemarekiko erantzukizunaren eta konpromisoaren kultura sustatuz, beti ere administrazio publikoekin eta gure inguruko gizarte eragileekin lankidetzan. Hori guztia betebeharrak borondatez betetzen eta iruzur fiskala prebenitzen laguntzeko.
Programaren jarduera guztiak genero ikuspegia zeharka txertatuz garatuko dira, eskainitako zerbitzuetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko, zerbitzu horiek eskuratzean, parte hartzean, emaitzetan eta euren gogobetetzean.

Egoeraren diagnostikoa:

Departamentuaren ahaleginak, besteak beste, zerga betebeharrak borondatez betetzea sustatzera bideratuta daude. Batetik, hiru arreta kanalen bidez (aurrez aurrekoa, telefono bidezkoa eta elektronikoa), zerga kudeaketa herritarrengana hurbiltzeko; eta, bestetik, zerga hezkuntzako eta iruzurra prebenitzeko sentsibilizazioko jardueren bidez, zerga kontzientzia indartzeko helburuarekin.
Osagarri gisa, pixkanaka genero ikuspegiko elementuak txertatu dira programako hainbat jardueratan, bereziki sexuaren arabera bereizitako informazioa bilduz eta aztertuz, emakumeek eta gizonek jarduera jakin batzuetan duten parte hartzearen jarraipena eginez eta komunikazio inklusiboko irizpideak erabiliz.
Orain arte bildutako datuekin, ez da desberdintasun esanguratsurik antzeman. Txosten batzuetatik agian ondorioak atera daitezke, baina horiek ez dira nahiko adierazgarriak informazioaren kalitatea eskasa delako, oso kasu gutxitan sartu baita sexuaren aldagaia.
Era berean, informazio horren bilketa eta ustiapena zabaltzeko eta sistematizatzeko aukera berriak identifikatu dira, emakumeen eta gizonen parte zerbitzu erabilpenari, emaitzei eta gogobetetzeari buruzko ezagutza hobetzeko eta erabaki prozesuetan kontuan hartzeko.
Jarduera horiei esker, emakumeek eta gizonek jasotako zerbitzuekin duten pertzepzioa hobeto ezagutu ahal izango da, eta oinarri sendoagoa izango da programaren eremuan genero ikuspegia zeharka txertatzen jarraitzeko.

Beharraren deskribapen xehatua:

Zerga Administrazioak balio anitzeko eta kalitatezko zerbitzuak garatu behar ditu, herritarrei beren eskubideak gauzatzen eta zerga-betebeharrak ulertzen eta betetzen laguntzeko. Eta beharrezkoak ez diren izapideak eta karga burokratikoak murriztuz egin behar du, herritarren beharretatik gertu dagoen eta aukera berdintasunaren bermatzaile den Administrazio gardena dela erakutsiz. Testuinguru horretan, beharrezkoa da emandako zerbitzuekin emakumeen eta gizonen beharrak behar bezala ezagutzea eta artatzea, eta pixkanaka genero ikuspegia txertatzea haien diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan.
Era berean, beharrezkoa da erakunde, instituzio eta kolektiboen lankidetza, zerga heziketaren bidez eta zerga sistemarekiko erantzukizunaren eta konpromisoaren kulturaren bidez kontzientzia sustatzeko, eta horrek, ziurrenik, betebeharrak borondatez betetzea hobetzen eta iruzurra prebenitzen lagunduko du.

Nori zuzendua:

Gipuzkoan bizi edo jarduten diren pertsona fisiko eta juridikoak.
Beste esku hartzaile batzuk: erakunde, organismo eta eragile laguntzaileak.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Giza baliabideak eta bitarteko informatikoak. Diru baliabideak. Laguntza teknikoak (informazioa eta zerbitzu telefonikoak, heziketa programaren ezarpena).

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

* Herritarren aurrez aurreko arretarako bulegoen kudeaketa.
* Laguntza telefonikoaren kudeaketa.
* Departamentuaren webgunearen koordinazioa.
* Zerga heziketaren arloko ekimenen bultzada.
* Lankidetza Gipuzkoako erakunde eta eragileekin, zerga iruzurra prebenitzeko

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Herritarrek zergak obligazioak errazago ulertu eta betetzeko zerbitzuak, haien eskubideak baliatzea ahalbidetzen dutenak, zerga obligazioak borondatez betetzearen heziketa eta kultura bultzatuz, zerga iruzurra prebenitzeko.

Programaren arau esparrua:

Zergen Foru Arau Orokorra. Administrazio Prozeduraren Legea. Datu Babesaren Legea. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko araudia. Herritarrari laguntza emateari buruzko dekretua. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako araudia.

Programan aplikatu beharreko genero berdintasun araudi garrantzitsuena:
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako.
- Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana (2025-2027) Gipuzkoan.

2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Lurraldearen erronkei aurre egiteko zerga eta finantza politika

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Aitortutako zerga-oinarriek BPGrekiko duten pisua	Ratioa	>=	168	175	180	185
Hezkuntza proiektuan sartutako ikastetxeen %, Gipuzkoako ikastetxe guztien aldean.	Ehunekoa	>=	53,18	50,00	50,00	50,00
Arau fiskalak betetzea	Bai/Ez	>=	Bai	Bai	Bai	Bai
Presio fiskala zerga itunduengatik	Kopurua	>=	19,58	19,58	22,00	22,00
PFEZaren birbanaketa gaitasunaren indizea	Kopurua	>=	6,57	6,57	6,30	6,30

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

Zerga sistema modu eraginkor eta efizientean kudeatzea, zerga kultura arduratsua sustatuz.



% 34,66



% 65,34

Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**460.062,78**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Organismoen, erakundeen eta behartutako kolektiboen arteko lankidetza sustatzea	141.179,92			2027/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza Kontzientzia fiskala sustatzea zerga obligazioak borondatez betetzeko heziketa eta kultura bultzatuz	244.292,90			2027/01/01	2027/12/31	✔
1.3 Ekintza Kolektibo ezberdinei zuzendutako fiskalitatearen arloko ideia berritzaileren sariketa (Gipuzkoako herritarrei, ikastetxeetara...)	74.589,96			2027/01/01	2027/12/31	

Urteko helburua: Foru Aldundiaren jarduera izatea euskaratik eta euskaraz

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du (%)	Ehunekoa	>=	0,00	0,00	80,00	80,00
Euskarazko administrazio-atalak	Kopurua	>=	0,00	0,00	50,00	50,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskararen Erabilera Plana (2023-2027) gauzatu



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**969,41**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Kontratuak egiterakoan hizkuntza berdintasuna lortzeko klausulen gida aplikatzea, kontratazio publikoa modu elektronikoan kudeatzeko aplikazio berriaren baitan.	969,41			2027/01/01	2027/12/31	

DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

Urteko helburua: Herritarren arretarako prozesuak hobetzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Lehenengo arreta mailan, informaziorako telefono bakarraren bitartez, arreta jaso duten kontsulten ehunekoa	Ehunekoa	>=	56,98	35,00	36,00	38,00
10 minututik beherako batez besteko itxarote-denbora eduki duten pertsonen ehunekoa	Ehunekoa	>=	92,21	90,00	91,00	92,00
Herritarrek Departamentuak eskaintzen dituen zerbitzuekiko duten gogobetetasunaren batezbesteko indizea	Kopurua	>=	9,32	8,00	8,50	8,50

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Zerga obligazioak betetzea erraztea



% 86,54

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**3.343.218,94**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Zergadunari informazio eta laguntza ematea departamentuko bulegoetan.	2.515.756,31			2027/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza Departamentuaren webgunea kudeatzea.	247.064,86			2027/01/01	2027/12/31	
1.3 Ekintza Telefono bidezko informazio eta zerbitzuak kudeatzea eta identifikazioa eskatzen duten zerbitzu pertsonalizatu berriak garatzea.	510.884,94			2027/01/01	2027/12/31	
1.4 Ekintza Eskuragarri dauden zerbitzuen argitalpena etengabe eguneratuta edukitzeko asmoz, herritarrentzako informazioa sistematizatzea: eskuliburuak, ereduak, albisteak, zergadunen profil	69.512,83			2027/01/01	2027/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
jakin batzuetarako gidak, egutegi fiskala... Hori guztia komunikazio inklusiboa eta ez-sexista erabiliz kanal eta euskarri guztietan.						
2. Ekintza lerroa: Herritarren arretako prozesuak garatzea						
16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 100,00						
	Ordainketa kredituak	**Datozen urteetako gastuak**	**Sarrera lotua**	**Hasiera data**	**Bukaera data**	**Etorkizuna eraikiz**
Ekintza lerroa, guztira	**247.064,86**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
2.1 Ekintza Zerbitzu publiko berriak ezartzea teknologia berrien erabileraren ondorioz	141.179,92			2027/01/01	2027/12/31	
2.2 Ekintza Beharrak antzemateko tresnak ezartzea	105.884,94			2027/01/01	2027/12/31	

GENERO BERDINTASUNA

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Beharraren deskribapen xehatua:

Zerbitzuak urteak daramatza genero ikuspegia txertatzeko konpromisoa hartuta. Horretarako, ekimen hauek erabiltzen ditu: sexuaren arabera bereizitako informazioa sortu, ebaluazio organoak osatu, aurrez aurreko arreta zaintza eta kontziliazio behar jakin batzuetara egokitu, hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabili herritarrei eta hezkuntza eremuari zuzendutako material eta edukietan, eta langileak berdintasunean prestatu.
Eskura dagoen informazioarekin egindako azterketek ez dute agerian uzten emakumeen eta gizonen arteko alde esanguratsurik; emandako zerbitzuekiko gogobetetzeari, garatutako jardueren emaitzei eta ikastetxeetan emandako unitate didaktikoaren aprobetxamenduari dagokienez, nesken eta mutilen artean antzeko mailak baititu.
Eremu batzuetan sexuaren arabera bereizitako informazioa oso mugatua denez, eta kontsulten eta iradokizunen gaietan desberdintasun jakin batzuk identifikatu direnez, komeni da datu horien bilketa, ustiapena eta analisia indartzea eta sistematizatzea. Horri esker, emakumeen eta gizonen beharrak, parte hartze mailak, kanaletarako sarbidea, emaitzak eta gogobetetzea sakonduko dira, eta informazio hori hobeto txertatuko da ebaluazio, jarraipen eta erabakiak hartzeko prozesuetan. Era berean, posible eta egokia denean, ikuspegi intersekzionala txertatzen saiatuko da, egoera bereiziak edo zaurgarritasun bereziko egoerak sor ditzaketen beste faktore batzuen konkurrentzia identifikatu ahal izateko.
Era berean, hobetzeko aukerak identifikatu dira, zerbitzuaren jardueran emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren zeharkako integrazioan sakontzeko, bereziki komunikazioaren, hezkuntza jardueren eta barne prestakuntzaren eremuetan.
Esparru horretan, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzearekin lotutako jarduera hauek identifikatzen dira, EBAn isla espezifikoa izan edo ez:
- Herritarren Arretarako Zerbitzuaren zerbitzu, programa eta jarduera nagusietan sexuaren arabera bereizitako informazioa biltzea eta sistematikoki aztertzea, emakumeen eta gizonen artean egon daitezkeen aldeak identifikatzeko eta haien parte hartzeari, arreta kanalen erabiltzeari, emaitzei eta gogobetetzeari buruzko ezagutza hobetzeko. Informazioaren eskuragarritasunak eta aplikatu beharreko araudiak ahalbidetzen duten heinean, analisi hori beste aldagai garrantzitsu batzuekin osatzen saiatuko da, ikuspegi intersekzionaletik. Jarduera horretan sartuko dira, besteak beste, gogobetetze inkestak, Ekonomia eta Zergak hezkuntzako programa, fiskalitateko ideia berritzaileen lehiaketak, aurrez aurreko arreta, Departamentuko Herritarren Arretarako Zerbitzuak gomendatutako prestakuntza jarduerak eta herritarrek aurkeztutako kontsultak, kexak eta iradokizunak. Jarduera hori berdintasuneko ekintza ez nagusi hauekin lotuta dago:
  * H.O.58 helburuko 1. jarduera ildoaren 2. ekintza, gogobetetze inkestei buruzkoa.
  * H.O.58 helburuko 2. jardun ildoaren 1. ekintza, herritarrei informazioa eta laguntza emateari buruzkoa.
- Informazio materialak eta edukiak eguneratzea eta aldian behin berrikustea, hedapen kanal eta euskarrietan komunikazio inklusibo eta ez sexistaren erabilera indartzeko. H.O.58 helburuko 2. jarduketa ildoaren 4. ekintzaren idazketa aldatu da, genero ikuspegia berariaz txertatzeko.
- Ikastetxeei zuzendutako zerga arloko ideia berritzaileen lehiaketan emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako irizpideak sartzea, betiere deialdien xedearekin eta oinarriekin bateragarriak badira. G.A.2. helburuko 1. jarduketa ildoaren 3. ekintza identifikatzen da berdintasunerako ekintza ez nagusi gisa.
- Zerbitzuko langileei zuzendutako berdintasunaren arloko barneko prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzak bultzatzea, ikuspegi hori zeharka txerta dadin herritarrei arreta ematean eta etorkizuneko jarduerak garatzean. Berdintasunaren arloko prestakuntza GFAren eskaintza korporatiboaren parte da. Jarduera hori zerbitzuko langileek eskura dauden prestakuntza ekintzetan aktiboki parte har dezaten sustatzean baino ez da gauzatzen.

Berdintasun-agindu nagusiak:

- Politika eta ekintza guztietan genero ikuspegia txertatzea.
- Sexuan oinarritutako desberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko neurri espezifikoak zein aldi baterakoak hartzea.
- Desberdintasunaren oinarri diren sexuaren araberako rol sozialak eta estereotipoak desagerraraztea sustatzea.
- Aurrekontu publikoetan genero ikuspegia txertatzea, bereziki diseinu fasean.
  Langile publikoen prestakuntza bermatzea berdintasunaren arloan.

- Estatistiketan, inkestetan eta datu bilketan sexu aldagaia sistematikoki txertatzea eta genero adierazleak ezartzea.
- Erabakiak hartzeko eremu guztietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortzeko neurri egokiak hartzea.
- Dokumentu eta euskarrietan hizkera ez sexista erabiltzea.
- Kontratuetan, diru laguntzetan eta hitzarmenetan berdintasun klausulak txertatzea.

Berdintasun-helburuak

Helburuak:

Ekintza lerroak:

Berdintasuna sustatzeko programaren ekintzak

Programaren gainerako ekintzetan, genero-ikuspegia kontuan hartzen da, honako jarduera hauen bidez:

- Sexua zeharkako aldagai gisa eta/edo genero-adierazle gisa
- Genero-ikuspegia barne hartzen duten azterlanak eta ikerketak
- Berdintasun-irizpideak kontratu, diru-laguntza, laguntza eta/edo hitzarmenetan

Genero-ikuspegiaren integrazio-indizea:	4,50	puntu
Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Administrazioak hizkuntza normalizazioaren legeak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak bermatu behar ditu; horrez gain, herritarren arreta-arloan euskararen erabilera lehentasunez sustatu behar du lan hizkuntza bezala, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak ezartzen duenaren arabera.

Kategoria	Nola
6.- Hizkuntza-klausulak	6.- Hizkuntza-klausulak

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

110. aurrekontu programako ekintzak 4.7, 16.6, 17.7 eta 18.1 Garapen Jasangarriko Helburuen helmugekin lotutako daude.

Kuantifikazioa: 3.601.315,99 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
4 KALITATEZKO HEZKUNTZA	4-Kalitatezko hezkuntza Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.	**159.441,43**	
Helburua	4.7 - 2030. urterako, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza aberatsak eta praktikoak eskuratzen dituztela bermatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizimodu jasangarrietarako hezkuntzaren, giza eskubideen, genero berdintasunaren, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzearen, mundu mailako hirigintzaren eta aniztasun kulturalaren eta kulturaren garapenerako hezkuntzaren bitartez.	159.441,43	
	Ekintza lerroak		
	Zerga sistema modu eraginkor eta efizientean kudeatzea, zerga kultura arduratsua sustatuz.	159.441,43	
16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	16-Bakea, justitzia eta instituzio sendoak Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	**3.140.283,80**	
Helburua	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan	3.140.283,80	
	Ekintza lerroak		
	Zerga obligazioak betetzea erraztea	2.893.218,94	
	Herritarren arretako prozesuak garatzea	247.064,86	
17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA	17-Helburuak lortzeko aliantza Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.	**300.621,35**	
Helburua	17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz.	300.621,35	
	Ekintza lerroak		
	Zerga sistema modu eraginkor eta efizientean kudeatzea, zerga kultura arduratsua sustatuz.	300.621,35	

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	18-kultura eta hizkuntza aniztasuna Kultura eta hizkuntza aniztasuna	**969,41**	
Helburua	18.1 - Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbesteko faktore gisa	969,41	
	Ekintza lerroak		
	Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskararen Erabilera Plana (2023-2027) gauzatu	969,41	
Guztira		**3.601.315,99**	

Programaren aurrekontuaren laburpena / Resumen del Presupuesto del Programa

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2026	2027	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2028	2029	2030	2031 eta hurrengoak/ 2031 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	3.444.411,00	3.529.498,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	516.021,00	517.818,00					
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	30.500,00	4.000,00					
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**3.990.932,00**	**4.051.316,00**					
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital							
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	**3.990.932,00**	**4.051.316,00**					

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	389.214,19	3.140.283,80			389.214,19	3.140.283,80
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	67.818,00	450.000,00			67.818,00	450.000,00
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	4.000,00				4.000,00	
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**461.032,19**	**3.590.283,80**			**461.032,19**	**3.590.283,80**
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital						
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	**461.032,19**	**3.590.283,80**			**461.032,19**	**3.590.283,80**